



ARABAN KUDEAKETA AURRERATUKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO PROGRAMA
INNOBIDEAK-KUDEABIDE PROGRAMA 2025

Eskatzeko epea (8. art.)		Aplikazio eremua eta proiektuak egiteko epea (5. art.)
Eskaerak aurkezteko epea 2025eko martxoaren 18an hasiko da eta 2025eko irailaren 26an bukatuko da.		Proiektuak ALHn ezarri beharko dira. 2025ean hasi beharko dira, laguntza eskaera aurkeztu ondoren, eta amaitu, aldiz, hasi eta hamabi hilabete naturaleko epean, eta, betiere, 2026ko urriaren 1a baino lehen.
Xedea (1. art.)	Kudeaketa hobetzeko proiektuak laguntzea, kudeaketa aurreratuaren ereduarekin bat datozenak eta Arabako enpresen lehiakortasuna hobetzen dutenak.	
Entitate onuradunak (3. art.)	5 langile eta 50 langile baino gutxiago artean dituzten Arabako enpresak, baldin eta Euskalitek egindako hasierako kontrasteko txostena indarrean badaukate eta kudeaketa aurreratuak ekintza plan zehaztu bat aurkezten badute. Ekintza plan horretan kontrastean identifikaturiko hobekuntza arloetako kudeaketa finkatzeko proiekturen bat jaso beharko da. Horrez gain, erakunde onuradunek honako betekizun hauek bete beharko dituzte: - Sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Araban edukitzea edo lurraldean gutxienez ekoizpen edo zerbitzu zentro bat edukitzea. - Jarduera ekonomikoen zergaren epigrafe hauetakoren batean jarduera ekonomikoak egitea: Enpresa jarduerak: 1, 2, 3, 4, 504, 62,69, 7, 84 eta 9 taldeak. - Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.	
Diruz lagundu daitezkeen jarduerak (4.1. art.)	Diruz lagundu ahalko dira kudeaketa aurreratuak hasierako kontraste txostenarekin bat datozen eta erakunde eskatzailearen kudeaketa aurreratuak ekintza planean jasotzen diren finkatzeko proiektuak (2B proiektuak).	
Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak (4.2. art.)	Diruz lagundu ahalko dira kanpoko enpresak edo profesional autonomoak kontratatutako egindako gastuak, kudeaketa hobetzeko aurkeztutako proiektuaren aholkularitza jarduerak egiteko erabili badira. Diruz lagundu ezin diren gastuak: - Balio erantsiaren gaineko zerga - Kanpoko enpresako langileen joan-etorrien gastuak - Materialak prestatzeko gastuak - Aretoen alokairua - Dietak eta antzekoak - Enpresa eskatzailearen barruko langile gastuak	
Laguntzen zenbatekoa (6. art.)	Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa: 10.500,00 euro % 70ko dirulaguntza Gutxieneko dirulaguntza: 1.500,00 euro	
Araudia eta laguntzak emateko araubidea	Martxoaren 4ko 63/2025 Foru Agindua. ALHAO 2025eko martxoaren 17a, astelehena · 31 zk. https://www.araba.eus/botha/Boletines/2025/031/2025_031_00706_E.pdf Dirulaguntzak lehia askea bidez emango dira (9. art.).	